
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

TAFALLA IRON FOUNDRY S. COOP

Zaragozako errepidea Z.G. 31,300 Tafalla



TAFALLA IRON FOUNDRY Sozietate Kooperatiboa establezimendua (helbidea: Zaragozako errepidea z.g., Tafalla) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan aurreikusten den jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikulu horren 1. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Establezimenduaren jarduera

Burdina galdatzea motor-blokeak fabrikatzeko.

Azken bisitaren eguna

2024ko urriaren 22a, asteartea

Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak

Tafalla Iron Foundry Sozietate Kooperatiboa enpresaren ekoizpen-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenerako kaltegarriak daude. Establezimenduaren kanpoaldean eragina duen istripu larri bat eragin dezakeen kasurik kaltegarriena DMEA biltegiaren kanpoko BLEVE sutea da. Pertsonek bi kalte izan ditzakete: batetik, erreduren ondoriozko kalteak eta bero-igorpenen ondoriozko heriotza-arriskua, eta, bestetik, leherketaren ondorengo presio-uhinen eta jaurtigaien ondoriozko kalteak. Establezimenduaren kanpoaldean badaude lurzorua/ura kutsatzeko beste kasu ez hain larri batzuk.

nstalazioetako substantzia arriskutsuak

Instalazioan honako neurri hauek hartu dira:

- Suteak detektatzeko eta automatikoki itzaltzeko sistemak
- Karbono monoxidoa detektatzeko sistemak.
- Alarma-sakagailuak eta abisu-sistemak.
- Isuriak arintzeko bitartekoak.
- DMEAren isurtze atmosferikoak prebenitzeko sistema
- Isuriei eusteko sistemak
- DMEA biltegirako suteetatik babesteko sistema espezifikoa.

Sustancias Peligrosas presentes en las instalaciones

DIMETILETILAMINA	**H225**	Likido eta lurrun oso sukoiak
	H302	Kaltegarria irentsiz gero
	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H332	Kaltegarria arnastuz gero
	H318	Lesio larriak begietan
	H331	Toxikoa arnastuz gero
	H335	Narritadura sor dezake arnasbideetan
GASOLIOA	**H224**	Likido eta lurrun oso sukoiak
	H304	Hilgarria izan daiteke irentsiz gero eta arnasbideetan sartuz gero
	H315	Larruazalaren narritadura eragiten du.
	H332	Kaltegarria arnastuz gero
	H351	Susmatzen da minbizia eragiten duela.
	H373	Organo jakin batzuei kalte egin diezaieke esposizio luze edo errepikatuagatik
	H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin

Inguruko herritarrei/jarduerei abisatzeko modua

Lantegian istripu larriren bat eragin dezakeen ezbeharren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko.

Nola jokatu istripu larririk izanez gero

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen.

Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzea.

Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak

Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.
Itxi itzazu ateak eta leihoak, jaitsi pertsianak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.
Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikituetan.
Ez erabili aireztatze gailuak.
Ekidin itzazu eraikinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garajeak.
Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada.
Tokiko irratiei entzun eta gomendio eta jarraibideei jarraitu

Urruntzeko eta babesteko jarraibideak

Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.
Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu eta itxi leihoak eta ateak.
Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada
Tokiko irratiei entzun eta agintariek helarazten dituzten gomendio eta jarraibideei jarraitu.
,

Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 proteccioncivil@navarra.es

http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion